

**IKASLEAREN GIDA**

**HAUR ETA GAZTEEN**

**KLINIKA: EBALUAKETA ETA**

**PSIKOPATOLOGIA**

**IKASTURTEA:**

**2016-17**

**TITULAZIOA: PSIKOLOGIako GRADUA**  
**LEKUA: PSIKOLOGIako FAKULTATEA**  
**IKASTURTEA: 2016-17**

**IKASLEAREN GIDA**

**1. IRAKASGAIAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK**

**IZENA: Haur eta gazteen klinika: Ebaluaketa eta psikopatologia**

KODEA: 25087

IKASTURTEA: 2016-17

IRAKASGAI MOTA = P = hautazkoa

ECTS Kredituak: 6

kurtsoa: Zehaztugabea

LAUHILEKOA: 1goa

Baldintzak: Ez dago aurre baldintzarik

Gomendioak: 4.mailako ikaslea izatea eta "Ebaluaketa eta diagnosi psikologikoa" derrigorrezkoa irakasgaia, gaindituta izatea.

**Irakasgaiaren deskribatzaileak:**

Ebaluaketa klinikoa. Haurtzaroa. Nerabezaroa. Prozesu diagnostikoa. Garapen normal eta patologikoa. Elkarrizketa teknikak haurtzaro eta nerabezaroan. Ebaluaketa tresna erabilienak: ezaugarriak, helburuak, propietate psikometrikoak. Garapen nahasteak. Urritasun intelektuala. Ikaskuntza nahasteak. Nahaste afektiboak. Portaera nahasteak. Kasu azterketa.

**Irakasgaiaren kontestua:**

Ikasleak haur eta nerabeen ebaluaketa eta psikopatologian barneratzea helburua duen, *psikologia klinikoko eta osasunaren psikologiako minorreko* hautazko irakasgaia. Ikasleek ebaluaketa tresnen eta haur eta nerabeen nahasteen ezaugarri nagusien ezagutzaren bitartez, kasu praktiko desberdinen inguruan hipotesi diagnostikoak eratu eta ebaluaketa emaitzen analisi eta integrazioa egin beharko dituzte. Talde lana eta beste erreflexio eta aktuazio estrategia batzuk sustatuko dira, prozesu diagnostikoaren zailtasunei aurregiteko, eta bide batez ikaskuntza prozesua hobetzeko.

**Irakaskuntza modalitateak:**

- Eskola magistralak (M) 30 ordu: Irakaskuntza modalitate honetan helburu nagusia irakasgaiaren psikopatologiari erreferentzia egiten dion atala lantzea da. Eskola teoriko-praktikoak hauetan, kasuen adibide eta eztabaidak egingo dira, bideoen ikuskatzea...Ikus programa teorikoa.
- Gela praktikak (GP) 15 ordu eta tailerrak (TA) 13 ordu: Modalitate honetan ebaluaketaren alderdiari ekingo diogu. Horretarako "kasuetan oinarritutako ikaskuntza" ("Aprendizaje basado en casos") formatua erabiliko da. Ikus programa praktikoa
- Mintegiak (M) 2 ordu: Kasu komplexu/nahasiaren eztabaida eta zalantzen argitzera zuzendua.

## 2. IRAKASLE-TALDEAREN DATUAK

IZENA: Andone Sistiaga Berrondo

ZENTRO/SAILA: Nortasuna, Balioespena eta tratamendu psikologikoa

ALORRA: Haur eta nerabeen psikologia; neuropsikologia

BULEGOA: 1D30

e-posta:  
andone.sistiaga@ehu.eus

TLF: 943018382/  
943018321

Web orria: <http://www.ehu.eus/eu/web/petra/home>

IZENA: Marisol Cruz Saez

ZENTRO/SAILA: Nortasuna, Balioespena eta tratamendu psikologikoa

BULEGOA: 1D12

e-posta:  
mariasoledad.cruz@ehu.eus

TLF: 943-015662

## 3. IRAKASGAIAREN BERARIAZKO ETA ZEHARKAKO GAITASUNAK

Gaitasuna	Irakasgaiaren gaitasunak
1	Testuinguru desberdinetan haur eta nerabeen eskaera eta beharrak aztertzeko gai izatea
2	Teknika egokiak erabiliz, arazo eta eskaera desberdinen aurrean, informazio garrantzitsua atera eta antolatzen jakitea
3	Ebaluaketa emaitzen analisi eta interpretazioa egiten jakitea
4	Haur eta nerabeengan sintoma eta zeinu psikopatologikoak identifikatzea eta beharrezko diagnostiko diferentziala egitea
5	Informazioaren itzultzea modu egokian egitea
6	Eremu desberdinetako profesionalekin lan egiten jakitea
7	Ebaluaketa emaitzen inguruko informe teknikoak idazteko gai izatea
8	Psikologiako arau deontologikoak ezagutu eta honen inguruan erabakiak hartzea
9	Haur eta nerabeen klinikaren inguruko informazioa lortzeko beharrezko estrategiak edukitzea eta dokumentu iturri desberdinak maneiatzea

## 4. PROGRAMA

### 4.1. PROGRAMA TEORIKOA

Irakaskuntza modalitatea: M

Egela plataforma erabiliko irakaskuntza taldeak prestatutako material teorikoa ikaslearentzako eskuragarri jartzeko.

Modalitate honetan hurrengo gaitasunak landuko dira batez ere: G1, G2, G4, G5 eta G7

#### **1 GAIA: Haur eta nerabeen psikodiagnosiaren kontzeptu eta prozesua: Elkarrizketa kliniko**

- Haur eta nerabezaroaren ebaluazio psikologikoaren alderdi zehatzak
- Ebaluazio-prozesua: Normaltasuna eta patologiaren arteko muga eta sistema taxonomikoak
- Hasierako eta itzultze elkarrizketa haur, gazte eta gurasoekin
- Elkarrizketa diagnostikoak: egituratuta eta erdiegituratuak

#### **2 GAIA: Lehen haurtzaroko ebaluazio psikologikoa: Autismoaren espektruko nahastea**

- Haurtzaro goiztiarreko garapenaren ebaluazioa
- Datu-iturriak eta garapenaren ebaluazioan erabilitako tresnak
- Gaitasun kognitibo eta egokitzapen mailarako ebaluazio probak
- Autismoaren espektruko nahasteak: definizio eta psikopatologia

#### **3 GAIA: Gaitasun kognitiboaren ebaluazioa psikologikoa: adimen urritasuna eta ikaskuntza nahasteak**

- Gaitasun kognitiboaren ebaluaketaren helburuak
- Ebaluaketa tresna nagusiak
- Adimen urritasuna: definizio eta ebaluaketa
- Ikaskuntza nahasteen definizioa eta ebaluaketa

#### **4 GAIA: Nahaste barneratzaileak**

- Antsietatea eta depresioa haurtzaro eta nerabezaroan: definizio eta ebaluaketa
- Trauma eta estres faktoreekin loturiko nahasteak: definizio eta ebaluaketa

#### **5 GAIA: Nahaste kanporatzaileak**

- Arreta-gabezia eta hiperaktibitatearen nahastea (AGNA): definizio eta ebaluazioa
- Nahaste ezezkor desafiatzailea: definizio eta ebaluazioa
- Portaera nahastea: definizio eta ebaluazioa

## 4.2. PRAKTIKA EGITASMOA

Irakaskuntza modalitatea: GP eta TA

Gela praktika eta tailerretan “kasuetan oinarritutako ikaskuntza” metodologia aktiboa jarraituz egingo da lan.

Ikasleek kopistegian eskuratu beharko dute eskola hauetarako irakaskuntza taldeak prestatu duen “praktiketako koadernoa”.

Talde txikian (3-4 ikasle) lan egingo dute (G8) kasu errealean inguruan. Hauetan elkarrizketak aztertuko dira arazo eremuak identifikatu eta hipotesi diagnostikoak egiteko helburuarekin (G4). Ikasleek ebaluaketa tresna desberdinak (G2), zuzendu eta interpretatu egin beharko dituzte (G3) eta emaitzen txostena egin beharko dute (G5 eta 6) kasu bakoitzerako.

Ikasleek, eskolatan landutako ebaluaketa tresna desberdinak kontsultatu ahal izango dituzte Karlos Santa Maria liburutegi zentralean (G9).

Praktiketan landuko diren helburu zehatzak:

- Elkarrizketen analisia (G1 eta 2)
- Haurren ebaluaketaren inguruko alderdi etikoak (G7)
- Ebaluaketa frogak:
  - Garapen frogak
  - Adimen bateriak
  - Gaitasun kognitibo zehatzen frogak: gaitasun bisuokonstruktiboak, arreta, irakurketa/idazketa....
  - Nahaste afektiboen ebaluaketarako eskalak
  - Portaera arazoaren eskalak

Ikasleak, gela praktika eta tailerretan landutakoa entregatzera animatuko dira. Honek beren lanaren egokitasunaren inguruan *feedbacka* emango die azken ebaluaketari begira.

**\*G: Landuko den gaitasuna**

## 5.-IRAKASGAIAREN PLANGINTZAKO KRONOGRAMA

Datak	Eskola egunak	EM (30 o.)	GP(15o.)	TA (13 o.)	Min (2 o.)	Ez presentzialak. (60 o.)
05/09-09/09	4	4				2
12/09-16/09	5	4	2			2
19/09-23/09	5	4	2			2
26/09-30/09	5	4	2			4
03/10-07/10	4	2	2			4
10/10-14/10	4	2	2			4
17/10-21/10	5	2	2			4
24/10-28/10	5	2	3			4
31/10-04/11	4	2		2		4
07/11-11/11	5	2		2		4
14/11-18/11	5	2		3		4
21/11-25/11	5			3		4
28/11-02/12	5			3		6
05/12-09/12	0					0
12/12-16/12	5				2	6
19/12-23/12	4					6
GUZTIRA		EM/CM1=30	IP/PA1=15	TA1=13	Min/Sem1=2	

## 6. EBALUAZIO-SISTEMA (TEORIA ETA PRAKTIKA)

Kurtso osoan zehar ikasleak bere ikaskuntza prozesuaren feedbacka jaso dezaken arren, irakasgaiaren ebaluaketa azterketa final baten bitartez egingo da (azterketen data ofizialetan):

- Galdera motzeko azterketa teorikoa. Azken notaren %ko 50a balio du azterketa honek.
- Azterketa praktikoa: ikasleek eskola praktikoetan landutako ebaluaketa tresna desberdinak zuzendu eta interpretatu beharko dituzte azterketa gainditu ahal izateko. Azken notaren %ko 50a balio du azterketa honek.
- Irakasgaia gainditzeko, aurreko bi atalek gaindituta egon beharko dute.

**\*\*\*Irakasgai honetan, aski izango da azterketara ez agertzea deialdiari uko egiteko.**

## 7. DOCUMENTAZIOA/BIBLIOGRAFIA

### **Ikasleek erreferentziako manual bat izango dute:**

Ezpeleta, L. y Toro, J. (2014). Psicopatología del desarrollo. Madrid: Pirámide.

### **OINARRIZKOA:**

American Psychiatric Association (2014). Manual diagnóstico y estadístico de los trastornos mentales DSM-5. Buenos Aires: Editorial Médica Panamericana.

Caballo, V.E., y Simón, M.A. (2001). Manual de Psicología Clínica Infantil y del Adolescente. Trastornos generales. Madrid: Pirámide.

Caballo, V.E., y Simón, M.A. (2002). Manual de Psicología Clínica Infantil y del Adolescente. Trastornos específicos. Madrid: Pirámide.

Cruz Sáez, S. (2006). Psicodiagnóstico de la Infancia y la Adolescencia. San Sebastián: Universidad del País Vasco.

Simón, M.A. y Caballo, V.E., (2000). Manual de Psicología clínica infantil y del adolescente. Trastornos específicos. Madrid: Pirámide.

### **OSAGARRIA:**

Caballo, V.E. (2005). Manual para la evaluación clínica de los trastornos psicológicos: Estrategias de evaluación, problemas infantiles y trastornos de ansiedad. Pirámide.

Caballo, V.E., y Simón, M.A. (2001). Manual de Psicología Clínica Infantil y del Adolescente. Trastornos generales. Madrid: Pirámide.

Caballo, V.E., y Simón, M.A. (2002). Manual de Psicología Clínica Infantil y del Adolescente. Trastornos específicos. Madrid: Pirámide.

Cruz Sáez, S. (2006). Psicodiagnóstico de la Infancia y la Adolescencia. San Sebastián: Universidad del País Vasco.

Ezpeleta, L. (2001). La entrevista diagnóstica con niños y adolescentes. Madrid: Síntesis.

Ezpeleta, L. (2005). Factores de riesgo en psicopatología del desarrollo. Barcelona: Masson.

García Sánchez, J. (2007). Dificultades del Desarrollo. Evaluación e intervención. Madrid: Ediciones pirámide.

House, A.E. (2003). DSM-IV. El Diagnóstico en la edad escolar. Madrid: Alianza Editorial.

Maganto, C., Amador, J.A y González, R. (Coord.) (2001). Evaluación Psicológica en la infancia y la adolescencia. Casos prácticos. Madrid: TEA.

Mardomingo, M.J. (1994). Psiquiatría del niño y del adolescente. Madrid: Díaz de Santos.

Moreno Roset, C. (2003). Evaluación Psicológica: concepto, proceso y aplicación en las áreas de desarrollo y de la inteligencia. Madrid: Sanz y Torres.

Sattler, J.M. (2003). Evaluación Infantil: Aplicaciones cognitivas. (4 ed.) (vols. I) México: Manual Moderno.

Sattler, J.M. (2004). Evaluación Infantil: Aplicaciones conductuales y clínicas. (vols. II) México: Manual Moderno.

Simón, M.A. y Caballo, V.E., (2000). Manual de Psicología clínica infantil y del

adolescente. Trastornos específicos. Madrid: Pirámide.  
Wiener, J.M. y Dulcan, M.K. (2006). Tratado de psiquiatría de la infancia y la adolescencia. Ediciones Masson.  
Wikcs-Nelson, R. e Israel, A.C. (1997). Psicopatología del niño y del adolescente. Madrid: Prentice-Hall.

**BALIABIDEAK INTERNETen:**

Colegio Oficial de Psicólogos: <http://www.COP/index.html>

TEA Ediciones: <http://www.teaediciones.es>

American Psychological Association: <http://www.apa.org>

## **8. TUTORE-ORDUTEGIAK**

Ikus GAUR eta psikologiako web orria.